

TXORI AMETSA

Amaia Martín

Pasai San Pedro, 16 urte

Ispilu zaharraren aurrean
ikusi ditut zure begiak,
argiak,
eta ohartu naiz
inoiz ez dituzula errotik atera
ahots nobleak;
etengabe ari direla
zure gauaren isiltasunarekin
solasean.

Ispilu zaharraren aurrean
ikusi ditut zure begiak,
argiak.

Zure eskuen epeltasunetik
askatu orduko
egin dut munduan zehar
eta, esan behar dizut,
antzineko sentimen zaharra bera
eman dit,
hasierako ortu hark bezalako
Yahwehen eguzkiak
sartu-irtena lainoen artetik
egin zuenean,
Jainkoaren laztana nire hegoetan
eta Haren irribarrea
nire estrainaldiko begien dirdiran.

Esaidazu, zilegi zaizula uste duzu
hainbeste zauri kantatu duen ahotsa
burdinen atzean kaiolatzea,
zilegi zaizula paisaje erreak alaitzea
saiatu den kolorea horrela
zapuztea,
zilegi zaizula berezko toki baten antsiz
–nongotasunaren etorkin–
zuhaitzez-zuhaitz, mendirik-mendi
ibili behar izan duen bilalaria
lotzea?

Ispilu zaharraren aurrean
ikusi nituen behin
zure begiak,
eta orduan argiak ziren,
maitea.